



Ametzua (-a)

etxebizitza

Aldaerak:
Ahozkoa: Amétzu

“... la casería principal de Ametzua... radicante en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz... que comprende ciento diez y ocho estados y tercio, equivalentes a cuatro áreas y cincuenta centiareas de cabida... la casa accesoria comprensiva diez y nueve y dos tercios estados o sean setenta y seis centiareas...”
DJE 3/110 or. (1872)



43° 10' 20"

2° 35' 7"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Bizitza bateko baserri honen lehendabiziko aipu dokumentala 1704. urteko Bizkaiko su-erroldean aurkitzen dugu, *Amezua*, alegia. Geroa dokumentazioan aldaketa gutxi jasan ditu izen horrek, eta forma bera ageri da dokumentuetan. Auzotarren artean, *Amétzu* moduan ezagutu da. Parean duen baserria, hasiera batean arnaga izandakoa, egun ere *Ametzua* izenez ezagutzen da (**Ikus Ametzualdekoa**). Hori dela eta, XX. mendeko aipuetan *Amezua* viejo (1910, BUA, RU) moduan ageri zaigu etxea.

Baserri-etxe handia da. Aurrean duen eranskinak itxura zeharo aldatu arren, XVII. mendean

hedatzen hasi zen estiloan jasoa dugu: solairu bi eta ganbara, isurki biko teilatuaren azpian. Bistakoak dira etxea osatzen duten hiru gorputzak. Alboetakoak harrizkoak dira, harlandua erabili bazuten ere kantaletarako eta jatorrizko leihoe-tarako. Erdian atartea dago, egurrezko dintelak eutsitako gorputzaren azpian, eta horren gaineko material nagusia adreilua da, tartean egurrezko egiturarekin. Leihoak ere egitura horretara egokitzen dira, eta ganbarako balkoia ere bai, egurrezko euskarría eta ondoko etxearen burdinsare berdina daukana.

toponimia

Bizkaiko haritzak bi multzotan banatzen dira. Handien eta lirainenei, izen zientifiko *Quercus robur* eta *Quercus petraea* dutenei, aretx deitzen diegu eta ereduá da Gernikakoa. Txikiagoei eta azal lodikoei, berriz ametz esaten zaie (*Quercus pyrenaica*). Azken hauek gogorragoak dira eta leku lehorrágo eta txarrágoetan hazteaz gain hobeki jasaten dute sua. Hostoak oso bestelakoak dira; iletsuágoak izateaz gain oso nabarmenak baitituzte sartu-irtenak. Hitz horri ugaritasuna adierazten duen zu atzikiá eta artikuluá gehitu zitzaion.